2005eko urtarrilaren 13ko Udal Gobernu Batzordean onartua. Aprobado el 13 de enero de 2005 por Junta de Gobierno Local.

**URNIETAKO UDALAREN MATERIALEN ERABILERA ERREGULATZEKO ARAUDIA**

**1.- Xedea.**

Araudi honen helburua da Urnietako Udalaren ondarea osatzen duten materialen erabilera erregulatzea.
Jarraian zerrendatzen den Urnietako Udalaren materiala jasotzeko aukera izango dute talde eskatzaileek:

Musika ekipoak
Oholtza 6X6
Oholtza 9X6
Hesiak
Barrilak
Kupelak
Buruhandiak
Erraldoiak
Festetarako barrak
Argi kuadroak
Mahaiak

**2.- Eskaerak.**

Lehenik eta behin, erabili nahi duten materialaren eskaera ofiziala aurkeztu beharko dute udaletxeko sarrera-erregistroan.
Eskaera erabili nahi duten eguna baino 15 egun natural lehenago aurkeztu beharko da. Eskaera horretan, talde eskatzailearen izenean, pertsona konkretu baten izen, abizen eta NAren zenbakia adierazi beharko dute, erabili nahi den materialaren arduradun bera egingo baita.
Erabili nahi den materiala jasotzea eta itzultzea talde eskatzailearen ardura izango da.
3. artikuluan ezartzen den bermea itzultzeko, eskatzaileak kontu korronte zenbaki bat adierazi beharko du eskaeran.

**3.- Bermea.**

**3.1.** Edozein taldek araudi honen 1. artikuluan zerrendatzen den Udalaren material horiek erabiltzeagatik berme modura diru kopuru bat ordaindu beharko du. Ondorengo hauek dira ordaindu beharreko bermeak:

| MATERIALA | BERMEA |
|---|---|
| Musika ekipoak | 90 € |
| Oholtza 6X6 | 150 € |
| Oholtza 9X6 | 275 € |
| Hesiak | 3 € / unitateko |
| Barrilak | 3 € / unitateko |
| Kupelak | 3 € / unitateko |
| Buruhandiak | 75 € / unitateko |
| Erraldoiak | 300 € / unitateko |
| Festetarako barrak | 200 € |
| Argi kuadroak | 50 € |
| Mahaiak | 3 € / unitateko |

**3.2.** Bermea Urnietako Udalaren 2101 0068 76 0000089425 kontu korrontean sartu beharko da, eskatutako materiala jaso aurretik.

Talde eskatzaileak berme hori Udalaren kontu korrontean sartu duela egiaztatzen duen agiria eskuduna den teknikariari aurkezten dionean jasoko du eskatutako materiala.

**3.3.** Erabilitako materiala itzultzen den ondorengo lehen lanegunean, materiala gainbegiratuko da, eta gero, bermea itzuliko da eskatzaileak horretarako adierazitako kontu korronte zenbakian.

**<u>4.- Alokairua.</u>**

**4.1.** Urtean zehar Urnietako Udalarekin elkarlanean gizarte, kultura, kirol, aisialdi, gazteria edota hezkuntza arloko inolako ekintza antolatzen parte hartzen ez duten herriko nahiz kanpoko erakunde, elkarte edo partikularrek, Udalaren material horiek erabiltzeagatik bermea ordaintzeaz gain alokairu bat ordaindu beharko dute, ondorengoak izanik ordaindu beharreko alokairuak:

| MATERIALA | ALOKAIRUA | |
|---|---|---|
| Musika ekipoak | 75 €/ eguneko | 75 € / eguneko |
| Oholtza 6X6 | 125 € / eguneko | |
| Oholtza 9X6 | 225 € / eguneko | |
| Hesiak | 2,45 €/eguneko eta unitateko | |
| Barrilak | 2,5 € / eguneko eta unitateko | |
| Kupelak | 2,5 € / eguneko eta unitateko | |
| Buruhandiak | 60 €/eguneko eta unitateko | |
| Erraldoiak | 250 €/eguneko eta unitateko | |
| Festetarako barrak | 175 €/ eguneko | |
| Argi kuadroak | 30 €/ eguneko | |
| Mahaiak | 2,5 € /eguneko eta unitateko | |

**4.2.** Urnietako Udalarekin elkarlanean gizarte, kultura, kirol, aisialdi, gazteria edota hezkuntza arloko ekintzak antolatzen parte hartzen duten herriko nahiz kanpoko erakunde, elkarte edo partilularrek Udalaren material hori erabiltzeagatik ez dute alokairurik ordainduko (bermea, ordea, bai).

Ordainketa hauetaz ere salbu geratzen dira ondorengo Udalak: Andoain, Lasarte, Usurbil, Hernani eta Astigarraga; beraiekin urtean zehar harremana baitago materiala jaso eta uzteko garaian.

**5.- Ebazpena.**

Herriko Gobernu Batzarra da organo eskuduna udal ondareko materiala erabiltzeko baimenak emateko; beraz, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, teknikari eskudunek baimenaren proposamena igorriko diote.

Herriko Gobernu Batzarrak hartutako erabakia behar bezala jakinaraziko zaio eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridikoari; erabakitzeko epea hilabetekoa izango da.

**6.- Eginbeharrak ez betetzea.**

Herriko Gobernu Batzarrak emandako baimenean edo araudi honetan ezarritako baldintza-eginbeharren bat betetzen ez bada, edo utzitako materiala behar bezala itzultzen ez bada, Herriko Gobernu Batzarrak erabaki ahal izango du ipinitako bermea ez itzultzea, eta baita Udalaren ondarea osatzen duten materialak gehiago edo aldi baterako erabiltzen ez uztea ere, kasuaren larritasunaren arabera.

**NORMATIVA REGULADORA DEL USO DE MATERIALES DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA**

**1.- Objetivo.**

Es objetivo de la presente normativa regular el uso de los materiales que conforman el patrimonio del Ayuntamiento de Urnieta.

Los colectivos solicitantes podrán acceder a los materiales del Ayuntamiento de Urnieta que se relacionan a continuación:

Equipos de música
Tablado 6x6
Tablado 9X6
Vallas
Barriles
Tambores
Cabezudos
Gigantes
Barras de fiesta
Cuadros de luz
Mesas

**2.- Solicitudes.**

En primer lugar, los solicitantes deberán presentar en el registro de entrada del ayuntamiento una solicitud oficial del material que desean utilizar.

Dicha solicitud deberán presentarla 15 días 4aturales antes del día en que se pretenda utilizar el material solicitado. En la solicitud se indicarán el nombre, apellido y el DNI de una persona que se responsabilizará del material solicitado.

Será responsabilidad del colectivo solicitante la recogida y devolución del material solicitado.

Para poder devolver la fianza establecida en el artículo 3, el solicitante deberá facilitar su número de cuenta corriente en la solicitud.

**3.- Fianza.**

**3.1.** Todos los colectivos deberán abonar un importe, a modo de fianza, por la utilización de los materiales municipales relacionados en el artículo 1. Las fianzas a depositar son las siguientes:

**MATERIAL** **FIANZA**

| | |
|---|---|
| Equipo de música | 90 € |
| Tablado 6X6 | 150 € |
| Tablado 9X6 | 275 € |
| Vallas | 3 € / unidad |
| Barriles | 3 € / unidad |
| Tambores | 3 €/ unidad |
| Cabezudos | 75 € / unidad |
| Gigantes | 300 € / unidad |
| Barras de fiesta | 200 € |
| Cuadros de luz | 50 € |
| Mesas | 3 € / unidad |

**3.2.** La fianza se depositará en el nº de cuenta 2101 0068 76 000008942 del Ayuntamiento de Urnieta, antes de la recogida del material solicitado.

El colectivo solicitante recogerá el material una vez presente al técnico competente el certificado que acredite haber depositado la correspondiente fianza en el nº de cuenta del Ayuntamiento.

**3.3.** El material utilizado se comprobará el primer día laborable siguiente al de la devolución, tras lo cual se procederá a la devolución de la fianza en el nº de cuenta facilitada al efecto por el solicitante.

**4.- Alquiler.**

**4.1.** Aquellos colectivos, asociaciones o particulares del municipio o de fuera del municipio que durante el año no colaboren con el Ayuntamiento de Urnieta en la organización de ninguna actividad de carácter social, cultural, deportiva, de tiempo libre, de juventud o educación deberán abonar, además de la correspondiente fianza, un alquiler por la utilización de materiales municipales.

| **MATERIAL** | **ALQUILER** |
|---|---|
| Equipo de música | 75 € / día |
| Tablado 6X6 | 125 € / día |
| Tablado 9X6 | 225 € / día |
| Vallas | 2,45 €/día y unidad |
| Barriles | 2,5 €/ día y unidad |
| Tambores | 2,5 €/ día y unidad |
| Cabezudos | 60 € / día y unidad |
| Gigantes | 250 € /día y unidad |
| Barras de fiesta | 175 € / día |
| Cuadros de luz | 30 €/ dia |
| Mesas | 2,5 € / día y unidad |

**4.2.** Aquellos colectivos, asociaciones o particulares del municipio o de fuera del municipio que colaboren con el Ayuntamiento de Urnieta en la organización de alguna actividad de carácter social, cultural, deportivo, de tiempo libre, de juventud o educación, estarán exentos del pago de alquiler de materiales municipales (no, en cambio, del pago de la fianza).

Asimismo, quedan exentos de los pagos anteriormente citados los ayuntamientos de Andoain, Lasarte, Usurbil, Hernani y Astigarraga, debido a la relación existente durante el año con dichas instituciones para la recogida y devolución de materiales.

**5.- Resolución.**

La Junta de Gobierno Local es el órgano competente para la concesión del permiso para la utilización de materiales de patrimonio municipal; por tanto, una vez presentada la documentación solicitada, los técnicos competentes emitirán la correspondiente propuesta.

La resolución adoptada por la Junta de Gobierno Local se notificará debidamente a la persona física o jurídica solicitante, siendo de un mes el plazo para la resolución de las solicitudes presentadas.

**6.- Incumplimiento de obligaciones.**

En caso de que se incumpla alguna de las obligaciones-condiciones establecidas en el permiso concedido por la Junta de Gobierno Local o en la presente normativa, o en caso de que el material cedido no se devuelva en condiciones adecuadas, la Junta de Gobierno Local podrá acordar la no devolución de la fianza depositada, así como, en función de la gravedad del caso, la denegación definitiva o temporal del permiso de utilización de materiales de patrimonio municipal.